

18. atala: Bakarka

Sagardotegiak

18.1.- Entzun audioa eta adierazi egia edo gezurra den:

1. Etengabe kimatzearen ondorioz hazten ez diren arbolak dira bonsaiak.
2. Espazio-ontzira ekarritako sagarrondoaren tamaina moldaketa genetikoaz lortu da.
3. Cherry tomateen izenak daukaten tamainarekin du zerikusia.
4. Beltza izateak azal kolorearekin eta sentimenduarekin du zerikusia Kevinen ustez.
5. Euskal Herrian euskal sagarra erabiltzen da sagardoa guztia egiteko.
6. Sagardogile-lobbyak sagar handiak nahi ditu, ez gerezi-tamainakoak.

18.2.- Sortu behar duten sagar berriari "angurri-sagarra" deitu behar omen diote. Zergatik? Zer da angurria?



18.3.- Kevinek eta Tasiok hitz-jokoa egiten dute cherry terminoarekin (cherry / txerri).

Euskaraz, gaztelaniatik eratorritako hitz ugari ditugu. Gehienetan esanahi bera edo antzekoa dute, baina ez beti. Zure iritziz zer esan nahi dute beheko hitz hauek? lotu hitz bakoitza bere esanahiarekin. *Horietako batzuen informazio gehigarria duzu Ikasbilen (hizkuntz arauak, lexikoa).*

Sesioa	Inozoa
Eskarmentua	Nahikoa
Dezente	Etsi
Inuzentea	Iskanbila
Amore eman	Astinaldia, jipoia
Pasada	Esperientzia



18. atala: Bakarka

Transkripzioa (02:39)

- K- Tasio, eta bonsai hauek, zertarako ekarri dituk?
 T- Ez dituk bonsaiak.
 K- Nola ezetz?
 T- Ez, arbola txikiak dituk.
 K- Bada, hori, arbola txikiak: bonsaiak.
 T- Ez, ez, bonsaiak, kimatuz eta kimatuz hazten uzten ez diren arbolak dituk.
 K- Teknikak berdin dio, bonsaiak dira eta kito!
 T- Ezetz bada! Hauek ez dituk kimaketaren ondorioz txikiak, moldaketa genetikoz lortutako mikrosagarrondoak dituk.
 K- Eta zertarako nahi dituzu sagarrondo-bonsai horiek?
 T- Ez direla bon... bueno, igual ziok. *Cherry* tomateak ezagutzen?
 K- Entsaladan jartzen diren horiek?
 T- Hori duk. Bueno, bada, esperimentu honen bitartez, sagarrak hazteko prozesua ere aldatu egin nahi diagu.
 K- Bitxia da.
 T- Zer duk bitxia?
 K- Zuk ba al dakizu zergatik izena duten *cherry* tomate txiki horiek?
 T- Jakina!
 K- Zergatik?
 T- Txerrikiz egindako tomateak direlako.
 K- Zu bai zarela txerrikia!
 T- Aizak, bazekiat zergatik esaten zaion *cherry* tomateari, e?
 K- Bota!
 T- *Cherry*k, ingelesez *gerezia* esan nahi dik. Tamaina eta itxura hori dutelako deitzen zaiok "gerezi-tomatea".
 K- Ez nekien txantxak egiteko gaitasuna zenuenik, Tasio.
 T- Nik ere ez nekian hi beltza hintzenik.
 K- Bada, argi eta garbi ikusten da.
 T- Bai, oso argi eta oso garbi. Pentsa ezak, zuri-zuria ikusten dela esango nitek.
 K- Beltza izatea ez da azal-kolore iluna izatea. Beltza izatea sentimendu bat da, bro!
 K- Aizu, eta sagarrena zer? Zertarako da?
 T- Euskal Herriak sagarrak ekarri behar izaten dizkik kanpotik euskal sagardo-ekoizpena bermatzeko.
 K- Ez al da bada sagardo guztia euskal sagarrarekin egin behar?
 T- Bai, jakina! Jaten diagun euskal okela guztia euskalduna den moduan. Inuzentea, hi!
 K- Aizu, gaur, ironikoegia zaude, ez? Ez zenuen bada gas gehiegi arnastuko, ez?
 T- Kontua duk sagardogile-lobbyaren enkargua dela. Badakik, espedizio honen babesleetako bat.
 K- Baina ze zentzu du *cherry*-sagarrak hazteak?
 T- Sagarrondoa duk *cherry* tamainakoa. Sagarra, ordea, *cherry* beharrean, angurri-sagar gisa izendatu dugu.
 K- Handia eta zuku askokoa! Hara bada, orduan nire angurri-banana, beltzena bezalakoxea!

Erantzunak

18.1.-

1. Egia / 2. Egia / 3. Gezurra / 4. Gezurra / 5. Gezurra / 6. Egia

18.2.-

Angurria fruitu bat da (gaztelaniaz "sandia"). Angurria bezalako sagar handia eta zapoetsua nahi dute.

18.3.-

Sesioa- iskanbila

Eskarmentua - esperientzia

Dezente - nahikoa

Inuzentea - inozoa

Amore eman - etsi

Pasada - astinaldia, jipoia